


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

Euskara-gaztelania elebidunen kode-alternantzia:

gazteentzako euskal irratsaio baten analisisia

Irati Rodrigo Lorenzo

Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

Gradu Amaierako Lana

UPV/EHU

2019/2020 Ikasturtea

Tutorea: Amaia Munarriz Ibarrola

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

AURKIBIDEA

Laburpena	1
1. Kode-alternantzia.....	3
1.2. Kode-alternantziaren fenomenoaz	5
1.2.1 Kode-alternantziaren hurbilpen linguistikoak	5
1.2.2 Kode-alternantziaren murriztapen gramatikalak	5
1.2.3 Kode-alternantzia motak.....	6
2. Euskara-gaztelania ukipenean.....	8
2.1. Euskararen egoera soziolinguistikoa	8
2.2. Euskara-gaztelania KAri buruzko ikerketak.....	10
3. Gaztea irratiazen hizkuntza-politika.....	11
3.1. Dida! Saioa eta Jon Gotzonen estilizazio parodikoa	12
4. Lanaren helburuak eta aurreikuspenak	13
5. Metodologia.....	14
5.1. Corpusha	14
5.2. Datuen analisisa.....	15
6. Emaizak	15
6.1 Corpusaren ezaugarri orokorrak	16
6.2 Parte-hartzaileen arteko alderaketa.....	17
7. Eztabaida eta ondorioak.....	24
8. Bibliografia	26

Laburpena

Gradu amaierako lan honen helburua gazteentzako irratsaio bateko ekoizpenetan oinarrituta euskara-gaztelania hizkuntza bikotean ekoizten diren kode-alternantzia motak aztertzea da. Hain zuzen, kode-alternantzia gramatikalak motak aztertzearekin batera, fenomeno honen erabilera ezaugarritzat duen Jon Gotzon Aldaparena esatariaren estiluzio linguistikoaren zenbait alderdi deskribatu nahi dira, saio horretako esatarien KA adibideen maiztasun eta nolakotasunari erreparatuta.

Horretarako, Gaztea irratiko 4 orduko Dida! irratsaio bat transkribatu da eta esatari nagusi eta kolaboratzaileen jardunean aurkitutako KA adibideekin corpusa sortu da. Ondoren, aurkitutako adibideak sailkatu eta aztertu dira, bai modu kuantitatiboan bai modu kualitatiboan.

Komunikabideen eremuari, eta bereziki Gaztea irratian dagokionez, azken urteotan egitura eta ohitura sozioestilistikoak kontuan hartzen dituen hizkuntza-ereduaren aldeko joera agertu da, neurri handi batean parte-hartzea sustatzen duen media-estrategiak bultzatuta. Joera horren adierazgarri da euskara batuaren inguruko joera «erlaxatu» dela, eta aldaera desberdinen erabilerari lekua egin zaiola. Testuinguru horretan kokatzen da lan honetan aztergai dugun Dida! saioko esatari nagusietako bat: Jon Gotzon Aldaparena. Izan ere, pertsonaia honek bere estiluzio parodikoaren mugen barruan KA baliatzen du euskaldun berri eta gazteengana hurbiltzeko.

Lan honetarako sortu dugun 4 orduko corpusean guztira 1076 KA adibide erauzi ditugu, Jon Gotzon Aldaparena pertsonaiaren ekoizpenen artean KAren ezaugarri kuantitatibo eta kualitatiboak aztertzeko. Emaitzek erakutsi dute, batetik, KAren maiztasunari dagokionez alde kuantitatiboa dagoela esatariaren artean. Bestetik, KA adibideen tipologia ere desberdina dela partaideen artean. Bereaz, oro har, JG pertsonaiak joera deigarria erakusten du bai ikuspegi kuantitatibo zein kualitatibotik. Alabaina, espero zenaren kontra, JGerentzako KA ereduak ez da literaturan euskara H2 dutenentzako agertzen dutena; hots, etiketa moduko KAren ordez esaldi barruko KA motak nagusi dira JGrengentzako. Esatari nagusien kasuan ere, espero zenaren kontra, emaitzetan bildu dugun ereduak ez da literaturan euskara H1 dutenentzako agertzen dutena; hots, esaldi barruko KA nagusitu ordez, etiketa modukoa nagusitzen dela aurkitu dugu.

KA adibideetan erabili diren hizkuntza-bikoteei dagokienez, gaztelania-euskara bikotean aurkitu ditugu KA adibide gehienak, baina kopuru txikiago batean izan bada ere, euskara-

ingeleza eta euskara-frantsesa hizkuntza-bikoteetan KA adibideak aurkitu ditugu gure corpusean.

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea gure ikerketa honen emaitzak ezin direla behin betikotzat jo, 4 orduko irratsaio batekin eta eguneroko saioan parte hartzen duten esatari batzuekin besterik ez baitugu proba egin eta ezin baitira, inondik inora ere, guk ateratako emaitzak Dida! Saio guztietara orokortu, are gutxiago euskal hiztun gazte guztietara. Hala eta guztiz ere, gazteen arteko hizkuntza eta bereziki Jon Gotzon Aldaparenaren estilizazioaren inguruko ideia orokor bat egiteko balioko digu proba honek, eta interesgarria litzateke corpusa zabaltzea lagina handitzeko eta KA adibide gehiago biltzeko, eta, aldi berean, partaide desberdinen arteko kontaktuak KA adibideetan zer eragin duen aztertzeko.

1. Kode-alternantzia

Gure gizartean, betidanik hizkuntzak eta errealitateak kontaktuan egon dira, eta gure inguruko errealitatea hizkuntza-ukipenaren fenomenoaren testuinguruan soilik uler dezakegu. Argi dago hizkuntzak gizarteko testuinguru desberdinetan duen erabilera aztertzeak informazio ugari eskaintzen duela, bai hizkuntza berari buruz, baina baita gizarte-harremanei buruz. Hain zuzen ere, aipatu dugun ukipen fenomeno horren ondorioz sortzen da Gradu Amaierako Lan (GRAL) honetan aztergai dugu fenomenoak: kode-alternantzia (KA, hemendik aurrera).

KA diskurtso berean bi hizkuntza txandakatzeari deritzo, eta ukipen-egoeran dauden bi hizkuntzen arteko kontaktuaren ondorioz sortzen da (Bullock eta Toribio, 2009). Fenomeno horri buruz egindako lehen lan ezagunak 1980ko hamarkadan argitaratu ziren gehien bat, eta ingelesaren eta gaztelaniaren arteko KA zuten aztergai. Fenomeno horri ingelesez *code-switching* (CS) edo *code-mixing* (CM) deitu izan zaio, baina egun *code-mixing* izendapenak nahasketa kutsua dauka eta horregatik bi kontzeptuak bereizi, eta *mixing* terminoa baztertzen da fenomenoak izendatzeko, konnotazio negatiboak izan ditzakeelako (Ezeizabarrena, 2015). Euskararen kasuan ere izen desberdinak erabili dira fenomeno bera izendatzeko: *kode-alternantzia* (Ezeizabarrena, 2015; Amonarriz, 2008), *hizkuntza lerratzea* (Epelde & Oyharçabal, 2013) edota *kode-aldaketa* (Aurrekoetxea & Unamuno, 2011). Horregatik, eta neutraltasuna mantentzearen, lan honetan kode-alternantzia (KA) terminoa erabiliko dugu.

Euskal Herriari dagokionez, egoera soziolinguistikoaren ondorioz, euskaldun guztiak elebidunak dira, eta KA ohiko fenomenoak da gurean (Muñoa-Barredo, 1997). Gainera, euskara eta gaztelaniaren arteko KA bereziki interesgarria da; izan ere, oso ezaugarri desberdinak dituzten bi hizkuntza konbinatzean zer gertatzen den eta KAren murriztapen gramatikalak zeintzuk diren aztertzeko aukera eskaintzen du. Kontuan izan behar dugu euskara hizkuntza ergatibo eta buru-azkena da, postposizioak eta kasuak erabiltzen dituena. Gaztelania, berriz, hizkuntza nominatiboa eta buru-lehena da, preposizioak erabiltzen dituena eta kasurik ez duena.

Bullock eta Toribiok (2009) azaldu bezala, KA hizkuntzalarien artean elebitasun-gaitasunaren adierazgarritzat hartu izan bada ere, publiko orokorraren artean hizkuntza gainbeheraren adierazletzat hartu izan da. Hau da, hizkuntza gaitasun «txarrarekin» edo

gaitasun «osoan» ez duten hiztunekin lotu ohi da, eta askotan hizkuntzaren kalitatearen «galeraren» inguruko eztabaida sortzen du (Muñoa-Barredo, 1997; Ibarra, 2011). Horren adierazle dira gizartean fenomeno horren gauzatzeak identifikatzeko erabiltzen diren izendapen gutxiesleak, hala nola: *euskano, spanglish, franglais, italiense...*

KA, aldiz, Poplackek (1980) frogatu bezala, ez da akatsa, hizkuntza-gaitasunaren adierazgarri baizik, bi hizkuntzen gramatika arauak errespetatu behar direlako, eta horrek gaitasun eta ezagutza sakona eskatzen duelako. Gazteei dagokienez, Ibarra (2011) erakutsi bezala, diskurtsoren naturaltasuna eta bat-batekotasuna bilatzen dituzte, eta horretarako gaztelaniazko kalkoak edo interferentziak txertatzen dira diskurtsuan, funtzio desberdinarekin. Hortaz, lan honetan KA fenomeno natural eta aberasgarritzat hautematen da, hizkuntza desberdinen ukipen egoeraren ondorioz sortzen dena.

Gradu Amaierako Lan (GRAL) honen helburua KAren erabileraren azterketan sakontzea da. Horretarako, Gaztea irratiko 4 orduko iraupena duen Dida! saioaren transkripzioan oinarrituta sortutako corpora aztertu dugu. Zehazki, KA horien nolakotasuna aztertu nahi dugu, eta irratsaio horretan ageri diren esatarien artean alderik ote dagoen ikusi nahi dugu. Eta, era berean, gazteei eta bereziki euskara H2 duten hiztunengana hurbiltzeko sortu den JGren estilizazio linguistikoaren zenbait alderdi deskribatzea, bereziki KAri dagokionez. Hain zuzen, hain deigarria gertatzen den bere estiloaren bereizgarri izan daitezkeen KA mota edota maiztasuna aztertu nahi ditugu, beste esatarien eta aurreko lanetan aurkitutakoarekin alderatuta.

Lan honen egiturari dagokionez, lehenengo KAren inguruan egindako ikerketa desberdinen eta aurkitutako murriztapenen berri emango da. Ondoren, 2. atalean euskaren egoera soziolinguistikoari buruzko zenbait datu aurkeztuko dira, euskara-gaztelania KAri buruz egin diren ikerketa desberdinen informazioarekin batera, eta, 3. atalean aztergai dugun Gaztea irratiazen hizkuntza politikari buruzko datu batzuk aztertuko dira.

Ondoren, 4. atalean, gure lanaren helburuak eta aurreikuspenak aipatuko dira. 5. atalean zehaztasun metodologikoak jasotzen dira, eta, ondoren, datuen analisisa aurkeztuko da. Bukatzeko, 6. atalean, emaitzak azaldu, eta 7. atalean, lan osoan zehar bildutako emaitzen inguruko eztabaida eta ondorio nagusiak azalduko dira, aurreikuspenak betetzen diren edo ez azaltzearekin batera.

1.2. Kode-alternantziaren fenomenoaz

Atal honetan, lehenik, KA alternantzia aztertzerakoan dauden hiru hurbilpen nagusiak aztertuko dira, eta, jarraian, KA gertatzeko murriztapen gramatikal klasikoak eta KA mota nagusiak zeintzuk diren azalduko da.

1.2.1 Kode-alternantziaren hurbilpen linguistikoak

KA inguruko azterketari dagokionez, hiru hurbilketa nagusi daude (Bullock & Toribio, 2009). Batetik, egiturazko hurbilketari helduz (*structural*), KAK hizkuntza-maila guztietan ematen duen informazioa aztertzen da, hots, zein ezaugarri linguistiko dituzten KAK lexiko, fonologia edo sintaxi mailan, besteak beste. Bigarrenik, ikuspuntu psikolinguistikoak (*psycholinguistic*) KAK aztertzen ditu elebidunen ekoizpenean, ulermenean eta jabekuntzan parte hartzen duten prozesu kognitiboak hobeto ulertzeko. Azkenik, ikuspegi soziolinguistikoak (*sociolinguistic*) KAn eragina duten gizarte-alderdiak aztertzen ditu, besteak beste, indarra, prestigioa, etab.

Lan honetan bereziki egiturazko hurbilketa erreparatuko zaio, Dida! Saioaren parte-hartzaileen KArri dagokion estilizazio linguistikoari, eta ekoizpenaren maiztasuna eta nolakotasuna aintzat hartuz.

1.2.2 Kode-alternantziaren murriztapen gramatikalak

Kontuan izan behar dugu KA ez dela fenomeno libre bat, izan ere, KA gertatzeko murriztapen gramatikal jakin batzuk eman behar dira, eta hauek bete ezean, hizkuntzen arteko aldaketa edota gorago aipatutako *code-mixing* fenomenotik hurbilago egongo litzateke. Murriztapen horien artean aurkitzen dira Poplackek (1980) proposatutako bi murriztapen klasikoak. Alde batetik, morfema askearena (*the free morpheme constraint*); hots, alternantzia ezin dela gertatu mendeko morfemen artean (1):

- (1) a. Una buena exCUSE

«aitzaki on bat»

- b. *EAT-iendo

«jaten»

(Poplack, 1980, 586. or.)

Bestetik, baliokidearen murriztapena (*the equivalent constraint*); hau da, ezin da alternantziarik gertatu bi hizkuntzen egitura gramatikalak baliokideak ez diren puntuetan (2), eta, beraz, ezin dira gramatikaren arauak urratu:

(2) Tell Larry QUE SE CALLE LA BOCA

«Esan Larry-ri isiltzeko»

(Poplack, 1980, 587. or.)

Hala ere, Poplackek lan berdinean murriztapen horiek apurtzen zirela ikusi zuen, hori gertatzen zen ehuneko oso txikia bazen ere. Adibidez, morfema askearen kasuan (3a), non ingelesezko esamolde idiomatiko bat apurtzen den, edota baliokidetasun murriztapena (3b) apurtzen den adibidea, zeinak adjektiboak gaztelaniako arauak betetzen baititu, ingelesezkoak hautsi arren. Aurrerago Liceras *et al.*-ek (2008, 831 or.) frogatu dute nahasketa kategoria funtzional eta lexikoen artean gertatu daitekeela, hots, morfema askearen murriztapena deuseztatu dute ere bai.

(3) a. Mi mai tuvo que ir a firmar y SHIT pa'sacarme. YOU KNOW.

b. Tenían patas flacas, pechos FLAT.

(Poplack, 1980, 600. or.)

1.2.3 Kode-alternantzia motak

KA motei dagokienez, berriz, literaturan hiru mota nagusi aipatu ohi dira (Poplack, 1980): esaldi artekoak (*intersential*), esaldi barrukoak (*intrasential*) eta etiketa modukoak (*tag-switching*).

Esaldi arteko KA, oro har, hizkuntza batean eta bestean esaldiak txertatzean datza, baina hizkuntza bakoitzaren egitura gramatikala errespetatuz; hau da, H1ean sortutako diskurtsoan H2ko esaldiak txertatzea. Kontuan izan behar dugu tipologia honetan ere bi hizkuntzak sakonki ezagutu eta menderatu behar direla, eta Ibarrek (2011) adierazi bezala, bi hizkuntzen arteko elkarbizitzaren eta bien ezaguera sakonaren ondorioz gertatzen dela. Hona hemen tipologia honen bi adibide (4):

(4) a. Zeren... ni lehen iristen nintzen Mateko azterketara eta ikasiz ere, bua!,
no entiendo nada!

b. Joaten ginen kaletik... *estaba siguiendo una mujer.*

(Ibarra, 2011, 284. or.)

Bigarrenik, esaldi barruko aldaketa perpaus berean hizkuntza aldatzean datza. Bereziki garrantzitsua da puntu honetan kontuan izatea esaldi barruko KA gertatzeko erabiltzen diren bi hizkuntzak oso ondo menderatu behar direla bien egitura sintaktikoak errespetatzea eskatzen dutelako; hau da, ezin da arau gramatikalik apurtu. Hona hemen bi adibide (5):

(5) a. Eta gelditzen zait... *como una sensación* horrela, pff.

b. Nengoen *alau del ambulatorio* yoateko...

(Ibarra, 2011, 283. or.)

Azkenik, etiketa moduko KAren barruan gehien bat interjekzio moduan erabiltzen diren hitzak edo esaldiak txertatzen dira. Hau da, gizartean erabiltzen diren formulak, harridura adierazteko edo makulu gisa, honako adibide hauetan ikusi daitekeen bezala (6):

(6) a. Gainera, nire... *o sea*, con mi vecina...

b. Eta gainera, *eske* puff, guztia da impresionante.

c. *Bueno*, que niretzat da todo el marrón. *Claro!*

(Ibarra, 2011, 287. or.)

Ibarrak (2011) azpimarratu bezala, etiketa moduko KAK oso ohikoak dira hiztun elebidunen artean, eta komunikazioari hasiera emateko, eteteko edo komunikazioa mantentzeko funtzioa izan ohi dute. Kontuan izan behar dugu tipologia hau bereziki ohikoa dela hiztun gazteen artean, duen kutsu informalagatik, eta komunikazioa ahalbidetzeko duen funtzioagatik

Gainera, ikusi da parte-hartzaileen profil sozio-psikolinguistikoaren arabera alda daitekeela KA adibideen agerpen maiztasuna, baina KA elebitasun-maila guztietan ematen bada ere, Lanttok (2012) Bilbo inguruko euskaldun zahar eta berrien talde bat aztertu zuenean ikusi zuen euskara H1 zutenek esaldi barruko KA adibide gehiago egiteko joera zutela; euskara H2 zuten hiztunek, berriz, etiketa moduko KA adibideak aurkitu zituen, hots, markatzaileak, esamoldeak eta gaztelaniazko hitz txertatzeak. Ikerketa

horren emaitzak bat zetozen Poplackek (1980) aurkitutakoarekin. Poplacken kasuan Puerto Ricoko eremu elebidun bateko 20 biztanleren jarduna aztertu zuen, eta partaide guztiek, gaitasun elebidun handiagoa zein txikiagoa izan, KA baliatzen zutela aurkitu zuen. Hala ere, hizkuntza-gaitasun handiagoa zutenengan KA adibideak tipologia desberdinekoak ziren, eta gaitasun txikiagoa zutenengan, berriz, esaldien arteko alternantzia nagusitzen zela aurkitu zuen.

2. Euskara-gaztelania ukipenean

2.1. Euskararen egoera soziolinguistikoa

Euskara Mendebaldeko Europan indoeuropar jatorria ez duen hizkuntza bakarra da, baina erromatarrak Iberiar Penintsulara iritsi zirenetik hizkuntza erromanikoekin etengabe kontaktuan egon da. Gaur egun, bereziki Frantziako hegoaldean eta Espainiako Iparraldean hitz egiten da (Cenoz eta Perales, 2001).


Euskara gaur egun oraindik ere hizkuntza gutxitua den arren, azken bi hamarkadetan bilakaera oso positiboa izan du, bereziki EAEn, gehien bat euskara sustatzeko politika linguistikoari esker. Izan ere, euskal gizartearen arlo guztietan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko sortu den politika abian jarri izan da, Eusko Jaurlaritzaren babespean, eta, horri esker, neurri handi batean, gaur egun euskara hizkuntza ofiziala da, gaztelaniarekin batera. Nafarroaren kasuan, berriz, egoera hasieratik desberdina izan zen, izan ere, bai gaztelania eta bai euskara kontaktuan dauden arren, ofizialtasun maila guztiz desberdina da, eremuaren arabera (Etxebarria, 2008). Hau da, Nafarroa hiru eremu desberdinetan banatzen da, euskarak duen babesaren arabera: eremu euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna. Eremu euskaldunean, EAEn gertatzen den bezala, euskara hizkuntza ofiziala da gaztelaniarekin batera; eremu misto eta ez-euskaldunean, berriz, ez da ofiziala. Azkenik, Ipar Euskal Herrian euskara ez da ofiziala, Frantziar Errepublikako hizkuntza bakarra frantsesa baita.

Hala ere, gaur egungo egoera soziolinguistikoak ezaugarri desberdinak ditu. Erakunde desberdinen ekimenak azpimarratu behar dira; Euskaltzaindiarenak, besteak beste, diktadura garaian jarduera eten behar izan bazuen ere, oso paper garrantzitsua izan zuelako euskararen hedatze eta estandarizazio prozesuan, neurri handi batean euskara batuaren sorreraren ondorioz 1960ko hamarkadan. Gainera, azken urteotan euskara berreskuratzeko egin diren esfortzuak elebidunen kopuruan eragin handia izan dute 1991. urtetik aurrera, aurrerago VI. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzetan ikusiko dugun

bezala. Gainera, Etxebarriaren (2008) arabera, euskarak hezkuntzan, administrazioan eta komunikabideetan izan duen presentziak euskara beraren estatusa hobetu du gaztelaniari dagokionez, bereziki EAEn.

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurlaritza, 2016), euskararen eremu osoan bizi den 16 urte edo gehiagoko 751.500 biztanle euskaldunak dira. Horrek esan nahi du biztanleriaren % 28,4 euskaldun elebiduna dela (1991n zenbatekoa % 22,3 zen) eta euskararekin batera frantsesa edo gaztelania hitz egiten duela. Hala ere, aipatutako eremuan 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 25,7k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean.

Inkesta beraren datuei erreparatuz ikusi daiteke gero eta euskaldun gehiago dagoela, baina elebidunen hazkundera ez da adin tarte guztietan maila berean ematen. Gaur egun 16 eta 24 adin tarteko % 71,4 euskaldunak dira; 1991n, berriz, % 25 ziren. 1. grafikoan ikusi daitekeenez, euskaldunen hazkundera gazteenengan ematen den heinean, duela 25 urtera arte euskaldun ehunekorik handiena zuen taldea, hots, nagusienena, gaur egun euskaldun gutxiago ditu. Gazteen artean antzeman dezakegun euskalduntze joera hori erraz azaldu daitekeela hezkuntzaren bidez, hots, gero eta guraso gehiagok euskarazko ereduetan inskribatzen dituzte seme-alabak, eta, hortaz, H2 euskara dutenen ehunekoa hazi egiten da.



1. grafikoa. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera (1991-2016, %).

(Eusko Jaurlaritza, 2016, 7. Or.)

2.2. Euskara-gaztelania KAri buruzko ikerketak

Euskal hiztun guztiak elebidunak dira gaztelania edo frantsesarekin, eta horregatik, aipatutako hizkuntza horiek kontaktuan egoten dira etengabe. Ondorioz, hizkuntza-kontaktu fenomeno linguistiko asko sortzen dira, eta horien artean aztergai dugun KA. Gure artean badira euskara-gaztelania eta euskara-frantsesa KA aztertu duten ikerlanak, besteak beste, Lantto (2012, 2014), Ibarra (2011), Epelde eta Oyharçabal (2010), Ezeizabarrena (2015), Ezeizabarrena eta Munarriz (2012) edo Parafita *et al.* (2015). Lan horietan, oro har, bi ikuspegitatik egindako ikerketak antzematen dira. Batetik, ikuspegi soziolinguistikotik egindakoak, hots, bereziki KA erabiltzeko funtzio komunikatiboak edo pragmatikoak aztertu dituztenak: Lantto (2014), Ibarra (2011). Bestetik, ikuspegi linguistikotik KAren egiturazko ezaugarriak aztertu dituztenak, besteak beste, Epelde eta Oyharçabal (2010), Ezeizabarrena (2015), Ezeizabarrena eta Munarriz (2012), Lantto (2012) edo Parafita *et al.* (2015). Ikerketa horietako emaitzen artean, jarraian lan honetarako garrantzizkoak diren batzuk jasotzen dira.

Ibarraren (2011) ikerketa 20 orduko eta 250.250 hitzez osatutako corpus espontaneo batean oinarritu zen. Parte-hartzaileak Iruñerriko 17 eta 25 urte bitarteko 35 gazte elebidun izan ziren. Parte-hartzaileen lehen hizkuntza (H1) gaztelania zen, 3 urtetik aurrera euskara jaso zuten eskolan, eta ikerketa egiterako unean guztiek gaitasun handia zuten euskaraz. Hala ere, kalean gaztelania erabili ohi zuten, eta euskara testuinguru formalago batera mugatzen zen. Ikerketa honetan gazteen ahozko erregistroaren ezaugarri diren naturaltasuna eta bat-batekotasuna aztertu zituen Ibarrak. Horretarako, batetik, KAren funtzio komunikatiboak aztertu zituen, eta, bestetik, KAren adibideak zein motakoak ziren aztertu zuen Poplacki (1980) jarraituz. Hala, bildutako adibideak honako taxonomia honen arabera sailkatu zituen: etiketak, esaldi barruko KAK eta esaldi artekoak. Hiru taldetako adibideak bildu eta ikertu zituzten, eta ondorio nagusietako bat izan zen KA helburu pragmatikoarekin ez ezik, taldearen parte izateko egiten zela; hau da, diskurtsoari adierazkortasuna emateaz gain, helburu komunikatiboa zuela.

Epelde eta Oyharçabalen (2010) kasuan, euskara eta frantsesaren arteko esaldi barruko KAK aztertu zituzten 60 urte baino gehiagoko Ipar Euskal Herriko 4 parte-hartzailearen artean. Guztiek euskaraz gaitasun handia zuten. Ikerketa horretan ere azpimarratu zen KAK bereziki esaldi barrukoak zirela, eta erabilitako hizkuntzen ezagutza eta gaitasun handia eskatzen zutela, ezin zirelako gramatikaren arauak hautsi. Oro har, joera handia zegoen sintagmak osorik txertatzeko, eta, euskara matrize hizkuntza izan ohi zen arren,

baziren marko morfosintaktiko frantsesak zituzten esaldiak ere, non preposiziozko esaldiak txertatzen baitziren euskaraz. Euskal marko morfosintaktikoetan esaldi gehiago txertatzen ziren marko morfosintaktiko frantsesetan baino.

Ildo beretik Lanttok (2012) 20 eta 45 urte bitarteko 22 euskara-gaztelania elebidunen KA motak aztertu zituen, parte-hartzaileen lehen hizkuntzaren arabera ezberdintasunik zegoen ikusteko asmoz. Parte-hartzaileetako 10ek H1 euskara eta gaztelania zituzten, modu naturalean txikitatik jaso baitzituzten, eta beste 12ak, berriz, H2 zuten euskara, eta jabekuntza adina berantiarra zen, pubertaroaren hasieran jaso baitzuten testuinguru formal batean. Guztira 22 orduko grabaketek osatu zuten corpora, eta bertan 1500 KA adibide inguru zenbatu zituen. Ikerketaren emaitzek erakutsi zuten txikitatik euskara eta gaztelania ikasitako parte-hartzaileen artean patroï desberdin asko ageri zirela, baina esaldi barrukoak nagusitzen zirela. H2 euskara zutenen kasuan, berriz, etiketa motakoak nagusi ziren. Hala ere, euskara H2 zeukatenen taldean desberdintasun kuantitatiboak ere bazeuden; parte-hartzaile batzuek KA adibide asko egiten zituzten, eta beste batzuek, berriz, bi sistema linguistikoen arteko banaketa argia egiten zuten.

3. Gaztea irratiazen hizkuntza-politika

Lan honetan aztergai dugun corpora Gaztea irratiko saio baten transkripzioa izanik, atal honetan, Gaztea irratiazen hizkuntzaren erabileran arreta jarriko dut bereziki. Lehenik, EiTb taldeko irratia horretako hizkuntza-politikaren inguruko ideia batzuk ekarriko ditut, eta, ondoren, aztergai izan dudana Dida! Saioan sakonduko dut.

Gaztea, 2007ra arte Euskadi Gaztea izandakoa, euskaraz egindako eta euskal gazteei zuzendutako musika-irratia katea da, EiTb komunikazio-taldea osatzen dutenetariko bat. Musika formula da irratiazen ardatz nagusia eta gazteei zuzenduta dago bere osotasunean, bai euskararen kontsumorako, bai sustapenerako. 1990eko hamarkadan sortu zen eta hasieratik ulertu zen hizkuntza-politika normalizatzaile baten baliabide gisa (Elordui, 2019). Gaztea irratia 2000. urtetik eta bereziki azken hamar urteotan pasatu da euskara batu estandarra soilik erabiltzetik bestelako aldaera geografikoak eta hizkera mailak kontuan hartzen dituen eredu heteroglosiko batera (Elordui 2016).

Hala, gazteei hurbiltzearen, entzuleei gertuagokoak izango zaizkien formulak erabiltzearen aldeko joera agertu dela dio Elordui (2016), hau da, egitura eta ohitura sozioestilistikoak kontuan hartzen dituen hizkuntza-ereduaren aldeko joera. Aldaketa graduala izan da, eta neurri handi batean komunikabide guztietan gertatu da, parte-hartzea

sustatzen duen media-estrategiak bultzatuta. Horrela, islatu egin da euskal gazteen artean egin daitezkeen hibridazio joerak: euskalkien artekoak eta hizkuntza artekoak. Elorduik nabarmentzen du pauso hori emateko diskurtsoaren estilizazioa izan behar dugula kontuan, komunikabideetako profesionalak gehienetan identitate hipotetikoa proiektatzen baitute. Irrati-esatariek, esaterako, maiz estilizatu behar dute aurretik diseinatutako pertsonaia, eta medioak eraiki nahi duen identitate orokorra; horretarako, irrati-generoa eta funtzioa kontuan izan behar dute (Elordui 2016).

3.1. Dida! Saioa eta Jon Gotzonen estilizazio parodikoa

2000. urtean Gaztea irratiaren hizkuntza-politika marko berri hartan sortzen da helburu parodikoa duen Jon Gotzon Aldaparenaren pertsonaia (Elordui, 2019). Jon Gotzonen pertsonaia Mikel Fernandez bikoizketa aktoreak karakterizatzen du eta gaur egun Dida saioaren esatari finkoa da. Pertsonaiak umore kutsua izan ohi du, eta euskara batuaren eta gaztelaniaren arteko hizkuntza aldaketa baliatzen du. Jon Gotzonek (JG aurrerantzean) Burgoseko euskaldun berri baten pertsonaia estilizatzen du, euskara ikastera euskal gizartean integratzera Euskal Herrira etorritakoa, hain zuzen. Pertsonaia kritikoa eta apurtzailea da, Joseina Etxeberriak adierazi bezala: «Jon Gotzon kritikoa da euskal munduarekin, erdal munduarekin, feminismoarekin, matxismoarekin, gauza guztiekin da kritikoa, baina bereziki euskal munduarekin» (Etxeberria, 2014-06-19, in Elordui, 2016, 43. or.). Beraz, JGek euskara-gaztelania KA erabiltzen du, edo «euskañol», berak irrati-saioan dioen bezala.

Elorduik (2016, 48. or.) Gaztearen zuzendari Jon Lamakaren hitzak berreskuratzen ditu JG pertsonaiaren eskumena zehazterako orduan: «Jon Gotzonek bakarrik dauka “euskañola” erabiltzeko baimena. Kutsatu egiten bada mahaiko besteengana, orduan hor arazo bat daukagu [...]» (Lamarka, 2014-05-28). Ondorioz, esatari nagusiek, dela Edurne Garmendiak ohiko saioetan, edo dela Xabin Fernandezek aztergai dugun saioan, euskaldun «formalaren» papera euren gain hartu behar dute, JGren pertsonaiaren «akatsak» zuzentzeko eta batua ez den euskara horri kontrapuntua jartzeko.

Beraz, aipatu bezala, JG pertsonaiak helburu parodikoa du saioan eta baita bertan parte hartzen duten esatarien artean ere. Hala, euskara batu estandarrak lehentasunezko lekua du eta gai nagusi eta garrantzitsuetarako mantentzen da, JGek sortutako euskara, kode-alternantzia gordinenak biltzen dituen, berriz, parodiaren eremura mugatzen da (Elordui 2016).

4. Lanaren helburuak eta aurreikuspenak

Lan honen helburua KA motetan sakontzea eta JGren estilizio linguistikoaren zenbait alderdi deskribatzea da, bereziki KAri dagokionez. Hain zuzen, deigarria gertatzen den estilo horren ezaugarriak zein diren aztertu nahi da, saio horretako esatarien KA adibideen maiztasun eta nolakotasunari erreparatuta. Horren bidez, ikusi nahi dugu ea bere estiloaren bereizgarri izan daitezkeen KA mota edota maiztasuna, beste esatarien eta aurreko lanetan aurkitutakoarekin alderatuta. Horretarako, Dida irratsaioko saio batean oinarritutako corpora izango dugu aztergai, eta bertan ekoizten diren KA adibideen tipologia aztertuko dugu.

Hasteko, JGren KA adibideen maiztasunari dagokionez, beste esatariekiko alde kuantitatiboa egongo dela aurreikusi dezakegu Elorduri (2016) jarraituz. Izan ere, Jon Gotzonen pertsonaiak helburu parodikoa du irratsaian; euskaldun berria da, eta KA egiteko baimen zabala duen esatari bakarra. Horri jarraituz bi talde bereizi dira datuak biltzerakoan, gehien bat hitz egiterako denborari eta rolari erreparatuz. Beraz, alde batetik esatariak daude (E1, E2, E3 eta E4) eta bestetik, kolaboratzaileak (K1, K2, K3 eta K4). Elordui (2016) aztertu bezala, esatari batzuk euskarazko jardunera mugatuta daude, eta beste batzuk, saioan duten pertsonaiaren arabera, hizkuntzak nahasteko askatasun handiagoa dute. Hau da, esatari nagusiek euskara formala eta txukuna erabili behar dute gai serio eta garrantzitsuetan; JGek, berriz, KA baliatuko du, nolabait ere entzule gazteei hurbiltzeko.

Bigarrenik, aurrekarietan oinarrituta, aurreikusten dugu parte-hartzaileen profil psikolinguistikoaren arabera era bateko edo besteko KA motak nagusituko direla. Espero daiteke, H1 euskara duten, eta, beraz, gaitasun handia duten parte-hartzaileen artean esaldi barruko KA motak nabarmentzea. Euskara H2 duten parte-hartzaileengan, berriz, etiketa moduko KA adibideak nagusitzea espero dugu. (cf. Lantto, 2012; Epelde eta Oyharçabal, 2010). Hala, JGren karakterizazioa kontuan izanda, hots, helduaroan euskara H2 moduan jaso duen Burgoseko «euskaldun» berria, etiketa moduko edota esaldikanpoko KA adibideak ugariagoak izatea espero dugu, eta gehien bat makulu hitzak, esaerak, eta mota horretakoak txertatzea gaztelaniaz.

Laburbilduz, KAren ezaugarriei dagokienez, honako aurreikuspen hauek egin ditzakegu, labur jarrita:

1. Alde kuantitatiboa egongo da parte-hartzaileen, eta bereziki «aurkezle» ardura duten esatarien, eta JGren artean, hizkuntza gaitasunaren eta programarekiko «harremanaren» arabera.

2. Alde kualitatiboa egongo da parte-hartzaileen KA mota nagusien artean. Esatari nagusiengan, KAk egitekotan, esaldi barruko motakoak nagusituko dira. Aldiz, JGrengan etiketa motatako KA gehiago agertzea espero da.

5. Metodologia

Atal honetan lehenik, corpusaren eta parte-hartzaileen inguruko zehaztasunak aurkeztuko dira, eta, bigarrenik, datuen analisia nola egin den azalduko da.

5.1. Corpusa

KA ikertzeko corpusa 4 orduko iraupena duen Gaztea irrati-kateko Dida! saio batetik atera dugun transkripzioak osatzen du. Dida saioari dagokionez, Gaztea irratian goizetan ematen den eta gazteei zuzenduta dagoen irratsaio bat da. Era berean, gazteak dira bertan agertzen diren esatari eta kolaboratzaile, eta erabiltzen den hizkera informala, bat-batekoa eta gazteei lotutakoa da. Horregatik, gazteen soziolektoaren eta erregistro informalaren ezaugarritzat har daitezkeen KA ugari ageri ohi dira.

Transkripzioa egiteko aukeratu dugun saioa ez da ohiko saio bat izan, Eguberrietan egindako saio berezia baizik, eta, hala, esatari eta kolaboratzaile ezohikoak ageri dira.

Guztira, honako zortzi parte-hartzaile hauen jardunak hartu dira kontuan. Alde batetik, lau esatari nagusienak. Horietako bik ohiko saioetan esatari papera izan ohi dute, eta beste biak komunikabideen arloko profesionalak dira (oporretan dauden esatariak ordezkatzan dituzte). E1 esataria komunikabideetan ibilaldi handiko pertsona da, saioa gidatzen du, eta euskara batuan aritzen da nagusiki. E2 esatariak Burgoseko euskaldun berria den Jon Gotzon irudikatzen du estilizazio parodikoaren bidez. E3 eta E4 esatariak ikus-entzulezko komunikazio graduko praktiketan dabilen ikasle gazteak dira, komunikabideen munduan hasi berriak. E3 eta E4 esatariak beren euskalkian aritzen dira saioan zehar.

Bestetik, lau kolaboratzaile ageri dira. Kolaboratzaileetako bi (K2 eta K3) ohiko saioetan esatari moduan egon ohi diren eta une horretan oporretan dauden profesionalak dira. Euskal komunikabideetan aritzen diren profesionalak dira, eta euskaraz hizkuntza-gaitasun handia dute. K4 kolaboratzailea, berriz, elkarrizketatzen duten gazte bat da, euskal kulturara eta egunerokotasunera zuzendutako Instagram kontua kudeatzen duena.

Azkenik, eguraldiaren berri emateko K1 kolaboratzailea Euskalmeteko profesionala da, eta hizkuntza-gaitasun handia du..

Beraz, zortzi parte-hartzailereren jarduna hartu da kontuan, lau esatari nagusi eta beste lau kolaboratzaile. Hego Euskal Herriko hiztunak dira denak, gehienak komunikabideen arloan aritzen direnak, eta beraz ondorioztatu dezakegu gaitasun handiko euskara-gaztelania elebidunak direla, eguneroko bizitzan euskara darabiltzatenak. Bereziki azpimarratu nahi da JG esatariaren rola, izan ere, lehen aipatu bezala, Burgoseko euskaldun berri baten pertsonaia estilizatzen du, euskara ikastera eta euskal gizartean integratzera Euskal Herrira etorritakoa; horregatik, euskara batuaren eta gaztelaniaren arteko hizkuntza aldaketa erabiltzen du estilizazio-baliabide modura.

5.2. Datuen analisia

Gorago aipatu bezala, corpusa osatzeko EITBren web orrialdean eskuragai dagoen Dida! Saio bat aukeratu da. Saioak 4 ordu eta 3 minutuko iraupena du, eta lehenik eta behin saio osoaren transkripzioa egin da. Transkripzioa baliatuz KA adibideak erauzi ditugu corpus bat sortzeko, eta bertan bildutako adibideak aztertu ditugu, bai kuantitatiboki zein kualitatiboki. Partaide guztien artean 1076 KA adibide bildu ditugu, eta, alde batetik, KA adibide horien hizkuntza-bikoteari erreparatu zaio, KA zein hizkuntzen artean egiten zen zehazteko; bestetik, honako tipologia honen arabera kodetu dira, Poplack (1980) eta Ibarrari (2011) jarraituz: esaldi artekoak (7a), esaldi barrukoak (7b) eta etiketa modukoak (7c).

- (7) a. ta ni... *no te creo!* Egitan?
- b. Joaten naiz kaka eitea ta *se me duermen las piernas*, egitan!
- c. *o sea que...* Pfffff... bota gehio!

6. Emaitzak

Atal honetan corpusean bildutako emaitza kualitatibo eta kuantitatiboak aurkeztuko dira. Horretarako, lehenenik emaitza orokorrak azalduko dira, bai hizkuntza-bikoteari eta bai KA tipologiari dagokionez, eta ondoren parte-hartzaileen arteko alderaketari helduko zaio.

6.1 Corpusaren ezaugarri orokorrak

Guztira 1076 KA adibide zenbatu ditugu transkripzio osoan. KA gertatzen denean erabiltzen den hizkuntza-bikoteaz ari garela, 1. taulan ikus daitekeen moduan, KA gehienak euskara-gaztelaniari (8a) dagozkio (%93,3), baina badira beste hizkuntza konbinazio batzuk ere: euskara-ingelesa, (8b) eta euskara-frantsesa (8c).

Ingelesaren kasuan, KA adibide kopurua nabarmena da: guztira 64 (% 5,95) adibide aurkitu dira, eta gehienak, % 58 (37), esaldi barruko motakoak dira. Bigarren postuan esaldi arteko motakoak daude: 18 adibide aurkitu dira (% 28) eta, azkenik, etiketa motakoak, 9 guztira (% 14). Frantsesaren kasuan, adibide gutxi batzuk ageri dira (% 0,74), guztiak esaldi artekoak, eta saioan jarritako abesti baten harira ageri dira guztiak. Hala ere, kontuan izan behar dugu esatariek eta kolaboratzaileen hitz-hartzeen iraupena ez dela berdina, eta, gainera, talde bakoitzaren artean hitz-hartzeen arteko aldea dagoela.

- (8) a. Eta *coges el otro paquete* ta egiten duzu gauza bera
- b. Ya, gera *bad influencer...*
- c. *L'amour toujours!* Tuyur ez, eh, *toujours!*


1. taula. Hizkuntza-bikoteen KA agerpen-maiztasuna.

Hizkuntza bikotea	Intra	Tag	Inter	Guztira
Euskara-Gaztelania	383 (% 38,1)	347 (% 34,6)	274 (% 27,3)	1004 (% 93,3)
Euskara-Ingelesa	37 (% 57,8)	9 (% 14,1)	18 (% 28,1)	64 (% 6)
Euskara-Frantsesa	0	0	8 (% 100)	8 (% 0,7)
Guztira	420 (% 39)	356 (% 33,1)	300 (% 27,9)	1076

Bigarren emaitza orokorra KA tipologiaren banaketari dagokio; hau da, esaldi artekoak, esaldi barrukoak eta etiketa. Banaketa 2. grafikoan ikus daiteke.

Maiztasunari dagokionez, esaldi barruko motako adibideak (9a) nabarmendu dira, % 39 (420) osotara. Bigarren postuan etiketa motatakoak (9b) ageri dira, %33 (356). Azkenik, esaldi arteko motatakoak (9c), % 28 (300 adibide). Hala ere, parte-hartzaileen artean aldea dago, hurrengo azpiatalean ikusiko dugun bezala.

- (9) a. *Desde luego ez!*
- b. *Pues hori gertatu da...*
- c. *Hori da, bai! Estoy cansada!*



2. grafikoa. KA mota bakoitzaren agerpen-maiztasuna.

6.2 Parte-hartzaileen arteko alderaketa

Atal honetan parte-hartzaile bakoitzak ekoizitako KA kopuruak aztertuko dira lehenik, eta ondoren partaide bakoitzeko mota eta funtzio nagusiak aztertuko dira, banakako joerak zeintzuk diren aztertzeko, eta guztien artean desberdintasunak zeintzuk diren ikusteko.

Hasteko, parte-hartzaile guztien emaitzak kontuan hartuta 1076 KA adibide aurkitu ditugu. Gogoratu behar dugu esatariek eta kolaboratzaileen hitz-hartzeen iraupena ez dela berdina, eta, gainera, talde bakoitzaren artean hitz-hartzeen arteko aldea dagoela. Horrek ondorioak izan ditzake partaideen artean aurkitu ditugun KA kopuruetan, 2. taulan ikusi daitekeen bezala.

2. taula. KA tipologia mota partaideka.

Partaidea	Intra	Inter	Tag	GUZTIRA
E1	96 (% 37,9)	30 (% 11,9)	127 (% 50,2)	253 (% 23,5)
E2	213 (% 36,7)	257 (% 44,3)	110 (% 19)	580 (% 53,9)
E3	39 (% 48,1)	2 (% 2,5)	40 (% 49,4)	81 (% 7,5)
E4	23 (% 30,7)	4 (% 5,3)	48 (% 64)	75 (% 7)
K1	0	0	0	0 (% 0)
K2	6 (% 35,3)	0	11 (% 64,7)	17 (% 1,6)
K3	20 (% 76,9)	1 (% 3,9)	5 (% 19,2)	26 (% 2,4)
K4	23 (% 52,3)	6 (% 13,6)	15 (% 34,1)	44 (% 4,1)
GUZTIRA	420 (% 39)	300 (% 27,9)	356 (% 33,1)	1076


Lehenik eta behin, ekoizitako kopuru osoei dagokienez, JG (E2) esatariaren kasuari erreparatuko diogu, KA kopuru deigarria ekoizten baitu, izan ere 580 KA adibide zenbatu ditugu, bildutako corpus osoaren % 53,9. Bigarren postuan E1 esataria dago. Ekoizten dituen KA adibideak JGren erdiak dira, hots, corpusaren % 23,5 ekoizten du. KA kopuruari dagokionez, hirugarren eta laugarren postuan beste bi esatari nagusiak daude, E3 eta E4, eta antzeko KA kopuruak ekoizten dituzte, % 7,5 eta % 7, hurrenez hurren.

Kolaboratzaileei dagokienez, aurretik aipatu bezala, diskurtso mota eta parte-hartze kopurua mugatuagoa dute, eta, ondorioz, KA kopurua txikiagoa da, 3. grafikoan ikusi daitekeen bezala. K1 kolaboratzaileak ez du KA adibiderik ekoizten. K2 kolaboratzaileak ekoizten dituen KA adibideak gure corpusaren % 1,6 dira, K3k ekoizten dituenak % 2,4, eta, azkenik, K4 kolaboratzailearenak % 4,1 dira.

Tipologiari dagokionez, joera desberdinak bildu ditugu gure corpusean, 3. grafikoan ikusi daitekeen bezala. Lehenik eta behin, E1 esatariak etiketa moduko KAK egin ditu gehien bat, eta mota honetako adibideak berak ekoizitako KA adibideen % 50,2 izan dira; bigarrenik esaldi barrukoak, % 37,9, eta, azkenik, esaldi artekoak % 11,9 ekoitzi ditu.

KAren funtzioari dagokionez, E1 esatariaren kasuan gehien errepikatzen diren KA adibideak honako bi motakoak izan ohi dira: aldeztatik gaztelaniaz finkatutako esaldiak (10) eta gazte hizkerari lotutako makulu hitzak (11):

- (10) a. Hor oso kurioosa da gizakientzako *piel de naranja* zerbait txarra dela, ezta?
 b. *Ocho semillas* eta holakoak badira, bai...
 c. ...edo *pan bimboa*, aukeratu nahi dezuna
- (11) a. Zuk galdetu lasai, gero guk erantzun edo ez... *aaaamiga*, ikusiko dugu.
 b. Ta *guay guay* dena...



3. grafikoa. KA mota bakoitzaren kopurua partaide bakoitzeko.

Bigarrenik, E2 partaidearengan nagusitzen den tipologiari dagokionez, kasu honetan esaldi arteko mota da nagusi (% 44,3). Esaldi barruko KA adibideei dagokienez, % 36,7 ekoitzi du, eta, azkenik, etiketa modukoak % 19 izan dira.

Adibide horien nolakotasunari erreparatuta, ekoizten dituen KAK honako funtzio hauek betetzen dituzte: gaztelaniazko esaera zaharrak edo herrikoiak (12), edo Gaztelan ohikoa den *laismoa*, eta bere pertsonaiaren ezaugarri dena (13):

- (12) a. Esaten den bezala, *ya estamos con la polla en el arroz*
 b. Laranja txarra da *como un mal novio, muy malo*
 c. Lehor-lehorra baldin badago, *la misma naranja* dago *más lehorra que la pata de un santo...*
 d. Nik asko maite dut baina *tiene sus puntitos de rareza*
- (13) a. *La echas bien de nata...*

b. Honi bai, honi gainean *no la echas, eh, la nata...*

c. *La echas la nata de bote...*

E3 partaidearen KA motari dagokionez, esaldi barruko KA adibideak (% 48,1) eta etiketa motatakoak (% 49,4) ekoizten ditu nagusiki, eta bien arteko aldea oso txikia da. Hala ere, esaldi arteko KAK saioan zehar bakarrik bitan ekoitzi ditu.

Funtzioari dagokionez, ekoizten dituen hitzak edo esaldiak komunikazioa mantentzeko makulu hitzak izan ohi dira, karga lexiko handirik ez dutenak (14):

- (14) a. Ea, *a ver* zemoduz ateatzen zaiten
b. *Bueno*, aipatzeko ezer ez...
c. *O sea*, badauka bezala magu... hori ona da?
d. *Bueno*, bale...

Edo gazte hizkerari lotutako hitzak (15), elkarrizketa informalagoa egiteko eta talde soziolinguistikoa ezartzeko funtzioa dutenak:

(15) Eh, *literal...*

Esatari nagusien taldearekin bukatzeko, E4 esatariak ekoitzi dituen KA adibide gehienak etiketa modukoak izan dira, bere corpusaren % 64; ondoren, esaldi barruko motakoak, (% 30,7) eta, azkenik, esaldi artekoak (% 5,3).

Beraz, (16) adibideetan ikus daitezkeen adibideen modukoak ekoizten ditu gehienetan, hots, etiketak. Partikula horiek gramatikalki esanahi handia ez duten arren, Ibarrek (2011) aipatu bezala, komunikazioa hasteko edo mantentzeko funtzioa betetzen dute:

- (16) a. *Osa* (sic), ez teu baliyo eh, a zi, aitzakie topetan, ezdakize...
b. *A ver*, lehenengo izan bihar gara konsziente errudun bakarra gu geu garela.
c. Ez, *ya está, ya, ya está!*

Kolaboratzaileei dagokienez, aurretik aipatu bezala, diskurtso mota eta parte-hartze kopurua mugatuagoa dute, eta, ondorioz, KA kopurua txikiagoa da, 3. grafikoan ikusi daitezkeen bezala.

Hasteko, K1 kolaboratzaileak ez du adibiderik ekoizten. K2 kolaboratzailearen kasuan, berriz, etiketa modukoak % 64,7 izan dira, eta esaldi barrukoak kopuru horren erdia izan dira, hots, % 35,3.

Funtzioari dagokionez, gehienak esaldien arteko lotura egiteko eta komunikazioa ahalbidetzen duten makuluak dira (17):

(17) a. *Claro*, hori ere gerta daiteke, bai...

b. Hauekin konparatuta ya, nik ez dakit eh hain ona den Bilbo, ze *claro*...

Bestetik, beste bi kolaboratzaileengan (K3 eta K4) esaldi barruko motako KAK nagusitzen dira (% 76,9 eta % 52,3, hurrenez hurren) eta, maiztasun txikiagoarekin, etiketa motatakoak daude (% 19,2 K3ren kasuan, eta % 34,1, berriz, K4ren kasuan). Azkenik, esaldi arteko KA motatakoen kopurua oso txikia da (% 3,9 eta % 13,6, hurrenez hurren).

K3 parte-hartzailearen kasuan entzulearen arreta deitzeko makulu hitzak edo gazteen artean erabili ohi direnak nabarmentzen dira (18):

Esaldi barruko motatako KAK ekoizten ditu, baina kasu horretan deigarria da KA direla kontziente izanda ekoizten dituelako, hots, KAZ kontziente da, eta ekoitzi bezain laster, bere burua zuzentzen du, honako adibide hauetan ikusi daitekeen bezala (19):

K4 parte-hartzaileak gipuzkera erabiltzen duen behin-behineko kolaboratzailea da, baina KARako duen joera deigarria da; izan ere, da, lagun arteko hizkera oso nabarmena erabiltzen du oro har, baina ingelesezko KA ugari (% 20,45) ekoizten ditu, *jerga* moduan (20):

(18) a. Ikusiko duzue asteartetik aurrera, *ojo*, ze astelehenean jai izango dugu!

b. *Joder*, materia ona!

Bestetik, beste bi kolaboratzaileengan (K3 eta K4) esaldi barruko motako KAK nagusitzen dira (% 76,9 eta % 52,3, hurrenez hurren) eta, maiztasun txikiagoarekin, etiketa motatakoak daude (% 19,2 K3ren kasuan, eta % 34,1, berriz, K4ren kasuan). Azkenik, esaldi arteko KA motatakoen kopurua oso txikia da (% 3,9 eta % 13,6, hurrenez hurren).

K3 parte-hartzailearen kasuan entzulearen arreta deitzeko makulu hitzak edo gazteen artean erabili ohi direnak nabarmentzen dira (18):

Esaldi barruko motatako KAK ekoizten ditu, baina kasu horretan deigarria da KA direla kontziente izanda ekoizten dituelako, hots, KAZ kontziente da, eta ekoitzi bezain laster, bere burua zuzentzen du, honako adibide hauetan ikusi daitekeen bezala (19):

K4 parte-hartzaileak gipuzkera erabiltzen duen behin-behineko kolaboratzailea da, baina KARako duen joera deigarria da; izan ere, da, lagun arteko hizkera oso nabarmena erabiltzen du oro har, baina ingelesezko KA ugari (% 20,45) ekoizten ditu, *jerga* moduan (20):

- (19) a. Baina, dikotomia hauen guztien artean, bada bat erregina, *roskoa*...
- b. Lehenengo gauza, Julen, mesedez, ez da *rosko* esaten!

Bestetik, beste bi kolaboratzaileengan (K3 eta K4) esaldi barruko motako KAK nagusitzen dira (% 76,9 eta % 52,3, hurrenez hurren) eta, maiztasun txikiagoarekin, etiketa motatakoak daude (% 19,2 K3ren kasuan, eta % 34,1, berriz, K4ren kasuan). Azkenik, esaldi arteko KA motatakoen kopurua oso txikia da (% 3,9 eta % 13,6, hurrenez hurren).

K3 parte-hartzailearen kasuan entzulearen arreta deitzeko makulu hitzak edo gazteen artean erabili ohi direnak nabarmentzen dira (18):

Esaldi barruko motatako KAK ekoizten ditu, baina kasu horretan deigarria da KA direla kontziente izanda ekoizten dituelako, hots, KAZ kontziente da, eta ekoitzi bezain laster, bere burua zuzentzen du, honako adibide hauetan ikusi daitekeen bezala (19):

K4 parte-hartzaileak gipuzkera erabiltzen duen behin-behineko kolaboratzailea da, baina KARako duen joera deigarria da; izan ere, da, lagun arteko hizkera oso nabarmena erabiltzen du oro har, baina ingelesezko KA ugari (% 20,45) ekoizten ditu, *jerga* moduan (20):

- (20) a. *Typical* zalantza, eh? Guztiena!
- b. *Homiek* behar zan... *homiek* behar zan euskaraz...
- c. *When* dituzu... odolki begiak

Horiez gain, gazteen artean ohikoak diren gaztelaniazko hitzak eta esamoldeak ere tartekatzen ditu (21):

- (21) a. *Te honra, te honra*, eh... Eskerrik asko!
- b. ta ni... *¡no te creo!* Egitan?

c. Denbora pila bat sartzen, zeatik dago jendea *super* eroa...

Azkenik, KA egiteko erabili diren hizkuntza-bikoteari dagokionez, 1. taulan ikusi dezakegun bezala, euskara-gaztelania erabiltzen da neurri handi batean (% 93,3). Hala ere, euskara-ingelesa bikotean ekoitzi diren adibideen % 7 (64) aurkitu dezakegu. Hizkuntza-bikote hori E1 esatariak erabili du gehien bat (% 45,3), jarraian E2 esatariak (% 28,1) eta azkenik K4 kolaboratzaileak (% 14,1). Kopuru txikiago batean izan bada ere, euskara-ingelesa baliatu dute ere E3 esatariak (% 7,8), K3 kolaboratzaileak (% 3,1) eta E4 esatariak (% 1,6). Euskara-frantsesa bikoteari dagokionez, adibide gutxiago bildu ditugu, eta corpus osoaren % 0,7 (8 adibide) dira. E2 esatariak % 50 ekoitzi ditu, E1 esatariak % 37,5, eta, azkenik, E3 esatariak % 12,5.

Beraz, parte-hartzaileen arteko alderaketari erreparatuz, esatari eta kolaboratzaileen artean KA ikuspegi bai kualitatibo zein kuantitatibo batetik mota askotakoa dela ikusi dugu. Oso ohikoak dira normalizatuta dauden alternantziak, gehien bat makulu hitzak edota biraoak, baina esaldi arteko eta esaldi barruko motatakoak ere oso maiz ekoizten dira.

Laburbilduz, pertsonaien arteko aldeak aztertu eta gero, hainbat ezaugarri nabarmendu dira. Alde batetik, hizkuntza pare desberdinen arteko KA adibideak aurkitu ditugun arren, euskara-gaztelania pare nagusitzen da oro har partaide guztien kasuan. Bestetik, KA ekoizterako orduan parte-hartzaileen profilararen araberako alde nabarmenak aurkitu ditugu bai kuantitatiboki bai kualitatiboki. Bereziki azpimarragarria da JGren (E2) kasua, beste parte-hartzaileen KA kopurua bikoiztu eta zazpikoizten duena, eta gehien bat esaldi barruko (% 36,7) eta esaldi arteko (% 44,3) KA motak ekoizten dituen, pertsonaiaren estilizio parodikoaren ondorioz.

Gainera, parte-hartzaileen artean joera desberdinak ere aurkitu ditugu KA motei dagokienez. Alde batetik, E1, E3, E4 eta K2ren kasuan gehien bat etiketa modukoak nabarmendu dira. E2ren kasua, gorago aztertu bezala, kasu berezia izan da pertsonaiaren estilizio parodikoaren eraginez, eta esaldi arteko KAK ekoitzi ditu gehien bat. Azkenik, K3 eta K4 parte-hartzaileek gehien bat esaldi barruko KAK egin dituzte.

KAren funtzioei dagokienez, funtzio nagusiei erreparatu diegu. Alde batetik, alde zurretik gaztelaniaz finkatuta dauden esamoldeak edo esaerak txertatzen dira. Bestetik, gazte hizkerara lotutako makuluak, hitzak eta fraseologia txertatzen da, hots, gazteen

soziolektoko elementuak baliatzea. Azkenik, komunikazioa mantentzeko elementuak txertatzen dira, karga lexiko gutxi duten makulu-hitzak erabiliz.

7. Eztabaida eta ondorioak

Lan honen helburua euskara-gaztelania KA aztertzea da, bereziki, Dida! irratsaioko parte-hartzaileen KAri dagokienez estilizazio linguistikoaren zenbait alderi deskribatzea da. Hain zuzen, JGren hain deigarria gertatzen den bere estiloaren bereizgarri izan daitezkeen KA mota edota maiztasuna aztertzea, beste esatarien eta aurreko lanetan aurkitutakoarekin alderatuta.

Oro har, irratsaio honetako ekoizpenekin osatutako corpusak erakutsi du KA adibide ugari (1076 adibide, zehazki) ekoizten direla 4 orduko iraupena duen saio batean, eta parte-hartzaile batzuek KA adibide gehiago egin arren, JGren kasuan bezala, gehienek ekoizten dutela adibideren bat. Beraz, Elorduik (2016) ondorioztatu bezala, ikusi dezakegu Gaztea irratiak azken urteotan euskara batu estandarra soilik erabiltzetik bestelako aldaera geografikoak eta hizkera mailak kontuan hartzen dituen eredu heteroglosiko baten aldeko apustua egin duela. Gainera, lehen aipatu bezala, kontuan izan behar dugu gazteei zuzendutako irratsaioa dela, eta gure corpusean bildu ditugun KA adibideetan islatzen dena Ibarrek (2011) aurkitutakoarekin bat dator; hots, KA gazteen erregistro informalean ohikoa dela, naturaltasuna eta bat-batekotasunaren adierazle baita. Hizkuntza-bikoteei dagokienez, gure emaitzak bat datoz Amonarrizek (2008) aurkitutakoarekin, hau da, euskara-gaztelania alternantzia ohikoa bada ere, beste hizkuntzak ere nahasten direla. Amonarrizek bere ikerketan ingelesa, frantsesa edo italiera aipatzen ditu, eta gure corpusean ingelesa eta frantsesarekin egin diren KA adibideak ere bildu ditugu.

Bestetik, lanari amaiera emateko, aurreko literaturan oinarrituta sortu ditugun aurreikuspenetatik abiatuta emaitzetan aurkeztutako datuak aztertuko ditugu, eta, lanaren ondorio nagusiak azalduko ditugu jarraian.

Lehenik, aurreikusi dugu alde kuantitatiboa egongo zela JG eta beste parte-hartzaileen artean, eta aztertu dugun corpusean aurreikuspena bete dela erakutsi dugu: JGek 580 KA adibide egin ditu, hots, corpus osoaren % 53,9. Kopuruari erreparatuz, bigarren postuan E1 parte-hartzailea dago, 253 KA adibiderek, eta corpusean bildu ditugun adibideen % 23,5 da. Beraz, kasu honetan ikusi dezakegu JGek beste esatariarekin alderatuta gutxienez KA kopuru bikoitza egiten duela. E3 eta E4 esatariarekin alderatzen badugu,

aldea nabarmen handitzen da, ekoitzi dituzten KA ehunekoak askoz txikiagoak direlako, % 7,5 eta % 7, hurrenez hurren.

Kolaboratzaileei dagokienez, aurreikusitakoa bete da ere bai. Hala ere, kontuan izan behar dugu aldez aurretik prestatutako diskurtsoak eta hitz egiteko denbora gutxiago izan ohi dutela, eta ondorioz, KA kopurua txikiagoa dela. Alde batetik, K1 kolaboratzaileak ez du KA adibiderik egiten aldez aurretik prestatutako diskurtsoa irakurtzen duelako. Bestetik, K2, K3 eta K4ren kasuan, KA adibideak egiten dituzten arren, JGren kopuruarekin alderatuta oso kopuru txikiak dira (% 1,58, % 2,41 eta % 4,08, hurrenez hurren). Beraz, guk aurkitutakoa bat dator Elorduik (2016) esandakoarekin, izan ere JGren estilizazio parodikoak KA gehiago egiteko lizentzia handiagoa eskaintzen dio. Esatarien erregistroa, ordea, zainduagoa da, eta KA egiteko lizentzia gutxiago dute, bildu ditugun emaitzetan ikusi daitekeen bezala. Horren adibide da gorago aipatu bezala, JGek corpusean bildu ditugun adibideen % 53,9 ekoizen duela.

Bigarren aurreikuspenaren arabera, parte-hartzaileen artean alde kualitatiboa egotea espero zen; hots, esatari nagusiengan esaldi barruko KAK ekoiztea, eta JGek, aldiz, etiketa moduko KA gehiago ekoiztea. Emaitzek erakutsi dute ez dela osorik bete, izan ere, H1 dutenen artean E1 eta E4 partaideek etiketa moduko KA gehiago baliatzen zituztela, % 50,2 eta % 64, hurrenez hurren. E3 esatariaren kasuan joera berdina antzeman dugu, etiketa modukoak jardunaren % 49,4 zirelako, baina esaldi barrukoekin alderatuta (% 48,1) adibide bakarreko aldea dago. Beraz, guk aurkitutako ez dator bat Lanttok (2012) aurkitutakoarekin, hots, H1 euskara zutenen artean esaldi barrukoak eta H2 zutenen arteak etiketa modukoak gehiago ekoizten zirela aurkitu baitzuen.

JGren kasuan, gehien bat esaldi kanpoko adibideak ekoizten dituen arren (% 44,3), etiketa modukoak gutxien ekoizten dituen KA adibideak dira (% 19). Beraz, azkeneko kasu honetan ere ikusi dezakegu gure emaitzak ez datozela bat aurreko literaturan aurkitu denarekin. Alde batetik, gogoratu dezagun Lanttok (2012) euskara H1 zutenek esaldi barruko KA adibide gehiago egiteko joera zutela aurkitu zuela; euskara H2 zuten hiztunek, berriz, etiketa moduko KA adibide gehiago ekoizten zituztela. Bestetik, Epelde eta Oyharçabalen (2010) kasuan azpimarratu zen KAK bereziki esaldi barrukoak zirela, eta, oro har, joera handia zegoela sintagmak osorik txertatzeko, baina gure corpusean ez da joera hori hauteman esatarien artean.

Lanarekin amaitzeko, gustatuko litzaidake azpimarratzea JGren pertsonaiaren estilazio parodikoa deigarria dela aurreko literaturarekin eta irratsaioan parte hartzen duten profesionalekin alderatzen badugu, bi ikuspuntutik. Alde batetik, kuantitatiboki, saioan ekoizten diren KA adibideen erdia baino gehiago (% 53,9 zehazki) berak ekoizten dituelako. Bestetik, kualitatiboki etiketa moduko KAK nabarmenduko zirela aurreikusten bagenuen ere, emaitzak bestelakoak izan direlako, hots, etiketa modukoak gutxien ekoitzi dituenak izan dira (% 19), eta esaldi artekoak nagusitu dira (% 44,3). Azkeneko datua bereziki deigarria da H1 euskara duten hiztunengan, literaturan aurkitutakoari jarraituz, KA mota ohikoena esaldi barrukoa da; beraz, JG pertsonaiaren emaitzak, tipologiari dagokionez, ez datoz bat literaturan euskara H2 duten hiztunengan lortutako emaitzekin, baina ezta euskara H1 dutenen emaitzekin ere, azkeneko talde honetan esaldi barrukoak nagusitzen baitziren.

Hala ere, aintzat hartu behar dugu sortutako corpusa lau orduko grabaketetan oinarritutako corpusa dela, eta eguneroko saioan parte hartzen duten esatari batzuekin besterik ez dela egin. Interesgarria izango litzateke etorkizunean corpusa zabaltzea lagina handitzeko eta KA adibide gehiago biltzeko, eta aldi berean partaide desberdinen arteko kontaktuak KA adibideetan zer eragin duen aztertzeko aukera izango genuke.

8. Bibliografia

- Amonarriz, K. (2008). Gazte hizkerak-hizkera gazteak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 68, 167-183.
- Aurrekoetxea, G. & Unamuno, L. (2011). Perpaus arteko Euskara-gaztelania kode-aldaketa. *Euskalingua*, 19, 25-30.
- Bullock, B. E. & Toribio, A. J. (2009). Themes in the study of code-switching. In *The Cambridge Handbook of Linguistic Code-Switching* (1.-17. or.). Cambridge University Press: Cambridge
- Cenoz, J. & Perales, J. (2001). The Basque-speaking communities. In M. T. Turell (arg.), *Multilingualism in Spain* (91.-110. or.). Clevedon: Multilingual Matters.
- Elordui, A. (2016). Elebakartasunetik heteroglosiara: Gaztea irratia, bernakulizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan. *Uztaro*, 97, 31-50.

- Elordui, A. (2019). Jon Gotzon Aldaparena, estilizazio parodikoaren bidez «benetako» euskalduntasunaren mugak hausten. In I. Epelde & O. Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez* (215.-240. or.). Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Epelde, I. & Oyharçabal, B. (2010). Perpaus barneko hizkuntza lerratzeak (HL) ekialdeko euskal elebidunetan. *ASJU*, 52, 55-64.
- Etxebarria Arostegui, M. (2008). Sociolingüística de las lenguas en contacto. *Oihenart*, 23, 77-96.
- Eusko Jaurlaritza (2016). *VI. Inkesta soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa.
- Ezeizabarrena, M. J. (2015). Kode-alternantzia elebidun txikien hizkuntzak bereizteko gaitasunaren adierazgarri. In M. J. Ezeizabarrena & R. Gómez (arg.), *Eridenen duzu zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)* (207.-225. or.). Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Ezeizabarrena, M. J., & Munarriz, A. (2012). Orden de palabras en los enunciados mixtos (euskera–castellano) de bilingües típicos y atípicos. *La lengua, lugar de encuentro*, 3893-3902
- Ibarra, O. (2011). Sobre estrategias discursivas de los jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código. *Oihenart*, 26, 277-298.
- Lantto, H. (2012). Gramatical code-switching patterns of early and late Basque-Spanish bilinguals. *Sociolinguistic Studies*, 6.1, 21-43.
- Lantto, H. (2014). Code-switching, swearing and slang: The colloquial register of Basque in Greater Bilbao. *International Journal of Bilingualism*, 18(6), 633-648.
- Liceras, J. M., Fernández-Fuertes, R., Perales, S., Pérez-Tattam, R. & Spradlin, K. T. (2008). Gender and gender agreement in bilingual native and non-native grammars: A view from child and adult functional-lexical mixings. *Lingua*, 118, 827-851.

- Muñoa-Barredo, I. (1997). Pragmatic functions of code-switching among Basque-Spanish bilinguals. *Actas do I Simposio Internacional sobre o Bilingüismo*. (528.-541. or.). Universidade de Vigo: Servizo de Publicacións Vigo.
- Parafita Couto, M.C., Munarriz, A., Epelde, I., Deuchar, M. & Oyharçabal, M. (2015). Gender conflict resolution in Spanish-Basque mixed DPs. *Bilingualism: Language and Cognition*, 18 (2), 304-323.
- Poplack, S. (1980). Sometimes I'll start a sentence in English y termino en español: toward a typology of code-switching. *Linguistics*, 8, 581-618.